

## ALSSATSSU: INTXAURRONDOAREN SUSTRAIAK



Uda iritsi zen eta Maria eta Pedro irrikitan zeuden Altsasura itzultzeko. Aurreko uda berezia izan zen beraientzat, enparantzako eskultura ezagutu baitzuten. Eskultura triste zegoen eta haiek lagundu egin zioten. Eskultura erdi hilda zegoen eta haurrak ezkurra batekin bizitza eman zioten.

Bost ordu eta gero, azkenean Altsasura iritsi ziren Madrildik autoz. Urte hartan erabaki zuten alojamentua berean egotea, gustatu zitzaielako. San Pedro eguna zen eta iritsi ziren bigarren mezara.

Mezara joan eta ondoren han, San Pedroko zelaian, bazkaldu zuten, ogitarteko batzuk. Edaria AEK-ko txosnan hartu zuten.

Jende festan zegoen: jaten, hitz egiten, dantzatzen eta batez ere edaten.



Bazkaldu eta gero, umeek bere gurasoei eskatu zieten bere laguna ikustea eta herrira bueltatu ziren arratsaldean.

Gurasoak kafea hartzera plazara taberna batera joan ziren eta Pedro eta Maria lagunarengana.

Zuhaitza askoz indartsuago aurkitu zuten eta konturatu ziren bere botereak handitu zirela. Haurrak iritsi orduko zuhaitza-eskultura agurtu zuten eta honek bere hostoak mugitu zituen eta Altsasuko zortzikoa txistukatzen hasi zen. Pedro eta Maria besarkada bat eman zioten.

- Kaixo lagun! Ze aldaketa handia eman duzun.

- Bai bikote, zuek ere bai, asko handitu zarete. Ondo bizi zarete, ezta?

- Bai, eskerrik asko. Nola pasatu duzu negua?

- Ondo, eguraldia ez da gogorra izan, baina ganberrada asko egin dizkidate. Eskerrak orain oso indartsua nagoen. Eta zuek?

- Beno, eskola ez zaigu gustatzen, batik bat matematika eta historia. Aspergarriak direlako. Biologian zutaz gogoratzen gara.
- Urte osoa itxaron dut eskerrak emateko, ezuste bat daukat zuentzat.
- Zein da ezuste hori?
- Ikusten duzue zer daukadan hemen?
- Zer? Ea! – esan zuten umeek.
- Ni oso gaztea nintzenean, gezi bat sartu zidaten.
- A, bai?
- Hurbildu hobeto ikusteko.

Eta bat-batean bi umeak xurgatu zituen bere barrura arbolak; eta di-da batean berriro zuhaitzetik atera ziren. Pedro eta Maria konturatu ziren plaza ez zegoela: eliza oso txikia zen, abereak kalean aske zebiltzan, eta zuhaitza begiratu zutenean oso txikia zela ohartu ziren eta galdetu zioten ea non zeuden.

- Altsasun zaudete, haurrak!
- Benetan?

Momentu hartan jendea eta animaliak korrika egiten hasi ziren alde batetik bestera eta beldurtuta oihuka. Halako batean alde batetik gerlari batzuk zaldiz agertu ziren eta bestetik beste batzuk korrika. Zaldizko gerlariek arkuak eta geziak zeramatzen eta besteek, berriz, aitzurrak, sardeak eta igitaiak. Borrokan hasi ziren, hura sarraskia! odola, oihuak, geziak alde guztietatik... eta geziakoko bat sartu zen intxaurrondo txikian. Borroka bukatu ondoren, han zeuden pertsonak garrasika hasi ziren:



- Gora Gartzia Ximenez, gure erregea!

Hori guztia ikusita, izututa, haurrek zuhaitzari laguntza eskatu zioten, eta berak haurrak berriro xurgatu zituen. Eta beste garai batean agertu ziren.

Pedro eta Maria konturatu ziren enparantza ez zela berdina. Zuhaitza handiagoa zela, baina ez zegoela kioskorik. Hala ere, eliza handiagoa zen, ia oraingoa bezalakoa. Aurreko bisitan baino etxe gehiago zeuden, baina gaur egun baino gutxiago. Gurdiak zeuden plazan. Herritarrak erosketak egiten ari ziren, azokan, kaleko postuetan.

Berriro ere, jende guztia kalean korrika egiten hasi zen, baina beherantz. Tiroak entzuten ziren. Pedro eta Maria, konturatu gabe, jende artean, ibaiaren bazterrean agertu ziren. Pedrok han zegoen beste ume bati galdetu zion:

- Zer gertatzen da hemen? Zergatik zaudete hain urduri?
- Quesada generalaren ejerzittoa Gasteiztik Iruñara dator eta Zumalakarregirenak eraso egingo die. Orain datoz hor goitik eta guk lagunduko diegu.

Altsasuko mendebaldetik ejerzito bat iristen ikusi zuten eta herritik jaisten zen beste ejerzito bat ere bai. Azken hauek txapela eta praka gorriak, jaka urdinak, bota beltzak



eta ezpatak eta baionetak zeramatzen.

Borroka handia egin zuten, gerlari asko hil ziren eta beste asko preso hartu zituzten Zumalakarregiren soldaduek.

Soldadu batek Maria eta Pedro ikusi zituen eta esan zien:

- Zertan ari zarete hemen? Bai arropa arraroa daramazuela! Zatozte nirekin!

Zaldira igo zituen, kalean gora egin zuten, pasatu ziren emakumean arropa garbitzen zuten leku batetik eta gero gora, ezkerrera, jarraitu zuten eta kanpamendu batera eraman zituen.

Umeek sekula ez zuten ikusi halako gauza krudelik eta gogorrik. Soldadua despitatuta zegoenean, ihes egitea erabaki zuten zuhaitzarengana.

- Aizu! Hau oso gogorra da guretzat! Gehiegi! Hau oparia! Etxera itzuli nahi dugu! Mesedez, eraman gaitzazu etxera!
- Bai, barkatu. Hemen, Altsasun gauza politak gertatu dira ere. Erakutsiko dizuet bat.



Intxaurrondoak berriro umeak xurgatu zituen eta amen batean, berriro zuhaitzetik atera ziren.

- Joan zaitezte apeaderora, han dantzaldi bat dago eta!
- Ziur? Benetan?
- Bai, gauza polita ikusiko duzue.
- Beno, fidatuko gara.

Iritsi zirenean, ez zegoen apeaderorik, baina bai dantzaldia.

Umeak galdetu zioten han zegoen neska bati:

- Zergatik ari zarete dantzatzen hemen? Plaza polita daukazue eta!
- Garizuma delako, ezin da dantzatu jendaurrean. Horregatik dantzatzen dugu hemen ezkutuan. Nor zarete?

- Pedro eta Maria gara. Eta zu?
- Kattalin naiz eta hau nire mutilaguna da – esan zuen mutil katxarro bat seinalatuz eta hau hurbildu zitzaien.
- Salut. Ça va? Je m'appele Alejo.
- Frantsesa da, oso euskara gutxi daki. Hemen dago trenbidea eraikitzen ari delako. Laster ezkonduko gara.



Laster kanpai batzuk entzun zituzten.

- Elizako kanpaiak dira. Errosario ordua da. Joan behar dugu, bestela izurritsuak izango gara. Bukatu da dantzaldia. Goazen elizara – esan zuen Kattalinek.
- Zuekin joango gara, gure zuhaitza elizaren ondoan dagoelako.
- Zuen zuhaitza?
- U! gure historia oso luzea da. Begira gure arropa. Arraroa da, ezta? Beste momentu batean kontatuko dizugu.



Kattalinek bere mantelina jantzi zuen eta denak elkarrekin plazara joan ziren.

Kattalin eta Alejo elizara sartu ziren eta Pedro eta Maria zuhaitzarengana joan ziren. Honek galdetu zien:

- Nola pasatu duzue bidaia honetan?
- Polita izan da. Lagunak egin ditugu, baina segur aski gure gurasoak kezkatuta daude. Itzuli gaitzazu gure denborara, San Pedro egunera.

Zuhaitzak haurrak xurgatu zituen eta oraingo plazan agertu ziren.

Bazkalondoan baino jende gehiago zegoen plazan. Banda kioskoan zegoen, kantari batzuekin. Gurasoak tabernatik atera ziren. Momentu horretan seme-alabak ikusi zituzten eta galdetu zieten:

- Non sartu zarete orain arte?
- Zuhaitzean.
- Ala, ala! Ez esan tontakeriarik. Goazen banda entzutera.

Bandako zuzendaria aurkezten hasi zen:

- Gaur gure kontzertuan hasiko gara Altsasuko amodio historia batekin.

Lehenengo hitzak entzutean, umeek ezin zuten sinestu.

- Alejotxo jantzi ttuzu  
pantaloi berriak  
zer esango ote dizu  
Altsasuko herriak?  
Altsasuko neskatxok,  
heuren kutrillokin,  
enamoratu dira  
frantzes mutillokin..  
Frantzes mutillok duaz  
zubi berrin behera,  
baita neskatxatxok ere  
akonpañatzera.

- Hemendik aurrera historia hobe ikasiko dugu. Historia bizitzen baduzu, ez da hain aspergarria – esan zion Pedrok Mariari.

**Egileak:** Ane Lakalle

Itziar Aventin

Belen Valencia